

# EUSKALZALEEN-BILZARRA

1910<sup>eko</sup> BIL-ALDIA

---

Aurthengo bere bil-aldia Euskalzaleen-Bilzarrak egin du DONOSTIAN, agorrillaren 24garrenean. Lagunak burdin-bidetik aldaratu ziren orduko, han zituzten Euskal-Esnaleko lagunetarik, hek ere zembait, Bilzar-Lagun direnak, DON ARTURO CAMPION, buruzagi. Eskuak elgarri khartsuki emanik, han ziren berehala guziak « Diputazioko Palazioan ».

JAUN MARQUES DE VALDESPINA, Diputazio-ko buru-lehenak egi-ten diote ongi-ethorria, agertzen ere duelarik hitz sarkhor eta khartsuz bere Euskalduntasuna. DON ARTURO CAMPION, Euskal-Esnaleko buru-lehenak, guzien izenean, erker hoberenak bihurtzen diozka, eta Bilkhurak, bi Jaun goretsieri, zeini bere aldian, erakusten diote bere ezagutza, esku-zarta kartsuenak adiaraziz. Hortarik lekhora, JAUN MARQUES DE VALDESPINA atheratzen da bere egiteko handietarat.

Orduan, JAUN JEAN DE JAURGAIN, Euskalzaleen-Bilzarreko buru-lehenak, esker-onak bihurtzen diozkate, Euskal-Esnaleko Buruzagiari eta Laguneri, Euskalzaleen-Bilzarrari egin dioten batzarre eder eta amulsuaz, eta hortarik barat gosten du, ez choilki Euskalzale Lagunen batasuna, bainan bai oraino lekhu eta lehor guzietako Euskaldunen haurridetasun osoa. Bilkhurak haren hitza saristatzen du, esku-zartak luzez adiaraziz. Hortan Buru-Lehenak dio, Bilkhurari hastapen ematen dioela, eta bilzarlanak hasterat dohazila.

Haste hastetik, berak aiphu ditu bilzar-lagun bilkhuran ezin aurkhitzeaz nahigabe dutenak, bai eta ere hogoi bat euskalzale, galdetzen dutenak Bilzarrerat onhetsiak izatea. Hoik dire : Arretz (Léon), Berdeco (Adolphe), Berrogain (Étienne), Bidart (J. Pierre), Bidegaray (Miguel), Choribit (Joseph), Colbert (Constans), Couchot (Jean), Detcbevers (Martin), Dubarry (Marcel), Elissabide (Dominique), Etchebarne (Jean-Émile), Fargeot (Louis), Iriart

(Michel), Lapeyre (André), Lopez de la Vega (Pierre), Noguez (Léon), Sancinéna (Sébastien), Petit de Meurville (Louis), Souberbielle (Maurice). Atsegin handiz onhesten dire guziak. — Izendatzen ditu gero hirur bilzar-lagun, aurthen galdu ditugunak: J. B<sup>e</sup> ALTHABE, erretor ondoa ; *Silvestre Fortabat*, erretor-nausi ondoa; eta D<sup>que</sup> HARRIET, ahoko-arthatzailea ; eta galdetzen dio iskribariari, eman dezan zerbeit, lagun hoikien Euskalduntasunari behatzen diren Chehetasunetarik.

1<sup>o</sup> J. B<sup>e</sup> ALTHABE, erretor ondoa, bichta-galduche zuen artean, khar handiko euskalzale bat zen. Jazko gure bilkhurarat helaraziak bazituen hiruzpalaur ehun euskal-hitz garbi, *berak zioena*, berrogoi bat urthez bilduak. Bilkhura huntan agertzekoak ditugu. — Bertzalde, berak moldatuak eta argitaratuak, bazituen bi euskal-liburutto : bata, *Ciberouko Botanika edo lantharen jakitatia*, eta bertzea, *Hounkaillu berrien enthelegia, Ciberouko laborarier*. Azkenekotz, goresgarri kausitu zuen beretzat, gure Bilzar-Lagun izatea, nola goresgarri baita guretzat, Euskalzale aiphagarri hura, Bilzar-Lagun izatu dugula erraten ahal izatea. — 2<sup>o</sup> SILVESTRE FORTABAT, Axular bera bezala, Sarako erretor urthez egotua zen. Bere nahiaren kontra, Baigorriko erretor-nausi egin zuten; bainan osasunik gabez, Sarako bere herri maiterat itzuli behar izatu zuen. — Ez bide da nihor izatu, hark bezambat Axularren liburua eskustatu eta beretu duenik. Urthe luzez, Axularren liburutik zuen, egun guzitako bere meditazionegaia; eta eliza alkhitikako haren irakaskuntzak aditurik, hartako direnek diote, iduri zuela Axular bera, noizpeitko heritarren illobetarat, bertze mundutik ethorria. Jazko bilkhuraz geroz zioen, nahiko zuela ordutik bilzar-lanetarat eskua sarthu eta bilkhuretarat jarraiki. — 3<sup>o</sup> D<sup>que</sup> HARRIET, Donibandarra, Donostian bizi zen. Egia bada ere, ez zen behinere gure bilkhuretarat agertu, bainan gauza bat bazuen bere alde, bertze hanitz dohain balio dituen : Laguntasunaren moldatzailetarik zela, beraz Laguntasunak bere izateaz bazioela zor. Eta filosofoak baitio : *Prim esse quana sic esse* : lehenagoko, beraz baliosagoko dela izatea, ezen ez gutiagoko edo gehiagoko izatea, horri darraiko, D<sup>que</sup> Harriet-ek gure gogoan bethiere lehenetarik egotea, irabazia zuela. — Eta horra, nor eta zer ziren, Jainkoak bere lorian dituela, aurthen galdu diren Bilzar-Lagunak.

Hortarik harat, iskribariak irakurtzen ditu, jazko bil-aldiari eta urthekeo har-emanari behatzen diren chehetasunak. Onhesten zaizko guziak, eta edireten da, eskuetan garbirik *laur ehun eta zortzi libera eta hirur* sos baditugula.

Aiphu dire gero, bi egiteko berezi, hitzartu bezala, aurthen bururatu direnak : — *Lehembizikoa*, bi marmol-harri, Maulen, Hiriko-Etcheari eratchiki zaizkolakoa ; bata, *Arnaud Oihenart*-ekoaren, eta bertzea, bi anaia *Bela-ko*, *Jacques eta Zaldunaren* goresmenetan. — *Bigarrena*, *J. B<sup>e</sup> Althabe*, bilzar-lagun zenak bildurikako euskal-hitzetarik altchatzeko zirenen agerian ematea, hekeri dohazkoten aintzin-hitz eta hitz-ondoko zembeitekin. Izanen dire bilkhura huntan irakurtuak.

Aiphu dire halaber, egin zaitezkelarik edo egiteko zirelarik, egin ez diren hirur gauza : *Lehembizikorik*, hilabetetik hilabeterako batzu bertzeren herri nausietako bilkhurak. Gauza hori, noiz nahi has eta jarraik-araz daitezkenetarik da. Egiten luketenek, agertu zaizkoten argitasunak buruzagietarat hel-arazteko lituzkete, eta buruzagiek, moldatuz, bilzar-laganetararat hel-arazteaz egin lezakete. Eta, gauza hekien bilzar-lagunetararat *hedatze* hori laiteke, *Egunkari* edo *Hilabetekari* baten balde, hanitz argi bilzar-laguneri eman lezoketena. — *Bigarrenekorik*, Euskara Semenariotan irakatsia izatearen galdea. Gauza horren alde dohan abiadura bat, dio MICHEL IRIART, bilzar lagun berri, Aldudeko jaun erretorak, Semenariotan badugu : Aphez-gaieri, urtheko bere predikua euskaraz egin dezaten, onhetsia zaiotela. Eta, horri darraikola, Martin Landerreche jaun aphezak dio, hortaz gehiagoko urhaspide haren, hori baita, *Euskara* Semenariotan irakatsia izatearen ardiesteko, bi laguntzaile hautuko aphezpikutegian badi-tuzkegula : Nere jaun DIHARCE, protonotari, Bikario jenerala, eta jaun DARANATZ, kalonje, aphezpikutegiko iskribarietarik bat : bata eta bertzea, guziek dakitena, gora jarriak direnaz bertze, euskalzale argi eta khar handitakoak. Gauza funts handiko horren urhatsa, Buru-Lehenaren eskurat uzten da. — *Hirur-garrenekorik*, euskalzale noizpeitko, marmol-harria merezitua dutelarik, lehenik emateko zaiotenen *hautua*. Gauza horri buruz, asko euskalzale zahar merezimendutsu, batzu bertzek, ex bada guziek, aiphu dituzte ; bainan zeinek eta zergatik, merezienik duten eta lasterrenik behar luketen, batek ere trenkatu gabe. Horra zergatik, gauzaren funts hobez egiteko, izendatzen diren hautatzailetzat : *Laburdiko*, Don Julio de Urquijo eta jaun aphez Martin Landerreche; — *Nafar-Behereko*, Jaun Frédéric de Saint-Jayme eta Jaun pierre Garacotche; — *Zuberoko*, jaun Jean de Jaurgain, eta Clément d'Andurain de Maytie. — *Bidasoaz harateko*, uzten da gauza, lau Probintzietako Bilzar-Lagunen eskurat. Izanen da izendatuak direnen *hautua*, iskribuz

Bilkhurarat ekharria. — Bilkhurak hemen esker diote, SAN FRANTSESEN HIRUR AITA, eta SAN INAZIOREN AITA. LLANDE, bilkhuran aphur batez aurkhituz, eta erran den hautuaz gutartean mintzatuz, atsegin handi egin darokuteneri. Chehetasun hauk izanen zaizkote hel-araziak, eta, ethorkisunean, Bilzar-Lagunek zorion lukete, berek nahi luketelarik, AITA goresgarri hoikien bilzarlaguntzat hartzea.

Hortarik landan, JAUN GEORGES LACOMBE, bilzar-lagunak, Bilkhurari galdetzen dio, ez lakioken ongi eta gutziagarri, Bilzar-Lagunen buru buruan, *Bilzar-Lagun goresizkotzat ematea*, zembeit kauptar jakintsun ornen handitako, *Euskara* daiteken barnenetik berek hartua eta bertzeri har-arazten hari dutenak, nola baitire JAUN HUGO SCHUCHARDT, JAUN C. C. UHLENBECK, JAUN (TH.) LINSCHMANN. — JAUN JEAN DE JAURGAIN, buru-lehenak, bilkhura guziaren nahia ikusiz, ihardesten du, gauza horren egitea baitezpadako dela, aiphatu diren izen handieri eratchikiz, haren oldetik ere, JAUN W.-J. VAN EYS eta JAUN JULIEN VINSON, bertze bi euskalzale aspaldidanik onez aiphu. ditugunen izenak. Bilkhurak, bi Bilzar-Lagun miretsi hoikien erranak, gogo hobereenez onhesten ditu, eta gauza hori orai beretik egiten ikusiko da.

Ordu beretik irakurtzen dire, J. B<sup>o</sup> ALTHABE zenarenganikako euskal-hitz altchatzeko zirenak, eta guk guziek ere urhats berak atchikitzeko gintuzkela derasaten hitzak : gauza, atzartasun handiz aditzen direnak, eta saristatzen esku-zarta handiz!

Eta bilzar-lanak hortan bururatzen direlarik, bilzar-lagun baten aiphutik eta bilkhura guziaren izenean, Buru-Lehenak esker onak ematen diozka, JOS.-ALEX. LACOSTE, bilzar-lagunan, bi urthe iraganetan guzieren egin darokigun ikustale amulsuaz, Bilkhurako Lagunak *atsegin sari* fotografiatuz ; eta galdetzen dio ethorkisunekotz amulsutasun bera. Bilzar-Lagun maite horrek ihardesten du, ez zuela esker-on handi holakorik merezi, baina, guziek hala nahi dutenaz geroz, eginen duela ethorkisunean ere orai arteraino bezala. Bilkhurak atsegin erakusten du, esku-zarta gozoenak emanez.

Azkenekotz, ez-baietan aphur batez egoturik, hitzartzen da, guzien nahitik, dathorren urtheko bil-aldia, DONAPHALEU-KO hirian eginen dela ; eta, guziaren buru, egiten da, urtheko Bilzar-Buruzagien erreberrimena.

Izendatzen dire, guzien erranetik, Jaun :

Georges Lacombe. . . . .	Buru-Lehen
Don Juan-Bautista de Larreta. . .	} Buru-bigarren
Clément d'Andurain de Maytie..	
Jean-Baptiste Salaberry: . . . . .	} Buru direnekin jartzaile
Don Ramon-Ferrer Galdiano. . .	
Martin Landerreche . . . . .	} Iskribari
	} Har-emanaren buru.

Gero, eguerdi gainean, *Tram* botheretsu batek, Bilkhura guzia bagaramazka *Uli-ko* mendi mazelari gora, ematen darokularik bide guzian, begiaren choragarri, itsaso eta lehor, zelhai eta mendi, hiri eta baserri, Donostiaz kampo, hiri gutik eman deza-katen ikusgarri paregabekoa.

Eta gain hartan, mahain eder eta gozo balean, berrogoi eta hamar bat lagun jartzen direlarik, han da ANAIA maite hek guzien alegrantzia, solas ozena, kanta eta musika ; han dire halaber *ttunttun eta chirola*, Euskaldun semeari *Opera* guziak baino maithagarriago zaizkonak. Eta baso kristalezko ezpaine-taraino bethiak, altchatzen direnean gora, Euskararen alde, eta. elgar jo dutelarik, behar den alderat uzkalzten, Bilkhurak, bi lagun maite hertsatzen ditu, gogoan dutenaren agertzerat. PIERRE JUANCHUTO, jaun kontseilari-jeneralaren euskarazko hitz garbiak, olio fiñena bezain gozagarri, jausien dire bihotzatarat, eta esku-zarta hirur aldiz errepikatuzkok saristatzen dute. DON BASILIO IRAIZOZ, Igueldoko erretoraren hitz orobat garbi, kharra dario-tenek, bihotzak sutan ematen dituzte, eta hari halaber, esku-zarta hiruretan errepikatuzkoak bihurtzen zaizko.

Jabetzen da Bilkhuraz orduan, JOS.-ALEZ. LACOSTE jauna, eta lagunak bere goara moldaturik, bere lan ichilak egiten ditu atzartasun handiz.

Jausten gaituzte gero, ethorri bidez, mendiari behera, eta gazte sendo suharrak pilota jokorat lehiatzen direlarik, chahar emerik bada ttoko ttoko ibai bazterrari behako baten ematerat dohanik.

Bizi beitez bethiere, *Euskara! Euskaldunak! Euskal-Her-ria!*

Aphez MARTIN LANDERRECHE, iskribaria.

DONIBANE-LOHITZUNEN, Buruillaren lehenean, 1911garrenean.